

GUDARITZA/S OLDADUZKA

BEAR ETE DA?

Soldadutzaren arazoa geroago ta biziago agertzen da gure gizartean eta aztertu-bearreko arazoa da au.

Oiñarrrian gudaren arazoa da, gudarik ez ba'litiz izango, soldadutzarik be ez litzake bearke, baiña zori txarrez, gudaren bildurra ez da kendu gizartetik.

Kalte aundiak datorkoz ortik gizarteari: Gosez bizi diranakaz janariak eta aurrerapena alkar-banatzeko bear litzakezan ondasunak gudetarako izkilluak gertatzen eralgiten diralako. Eta zelako eralke-tak egin be! Sinistu-eziñeko gauzea.

ZELAKOA

Gudaritza bearrezkotzat joten ba'da be, era asko dagoz gudarostea eratzeko: Adin bateko gazte guztiak orretarako beartzea da era bat. Gudaritza, erri-laguntza lez artzen da. Eta lanbidedun gudariena, soldaduena, da bestea. Onei ordaindu egiten jake eta beste lanbide askoren antzeko bat litzake ori be.

EUSKALDUNAK

Arlo onetan beste arazo bat litzake, euskaldunak gudaritza egiteko, euskaldunak ez diran gudalburuen menpean izan bear daben. Lenagoko aldietan ez zan orrelan.

Antxiñako gudariak, eta antxiña diñogunean orain eun eta berrogei ta amar urte dira, gudari euskaldunak Euskalerrian baiño ez ziran gudari eta gudaketan Luiando'ra eltzen ziranean Zugatz maillatua izaten zan muga, zugatz orretan sartzen zan ezpatea eta andik aurrera ez ziran joaten euskaldunak eta joatekotan ondo ordainduta. Baiña eskubide ori be galdu zan beste lege zar guztiakaz.

MENBAKOAK

Orain gudaritzaren aurrean iru jokabide agertu dira. Batzuk isillik doaz, beste batzuk menbako agertzen dira eta ez dabe onartzen ez gudaritzarik eta ez ordezeko gizarte-lanik. Irugarren taldekoak, gizar-

te-laguntza egiteko gertu dagoz baiña ez izkillu-gudaritza egiteko.

Menbakoak dirala esan dogu talde bat: "Insumisioak". Oneik oso-osoan bake-zaleak dira eta gudaroste guztiak kentzea eskatzen dabe eta eurak ez dabe onartzen gudaritzagaz zer-ikusia daukan ezelako jokabiderik.

Zalantza barik, jokabide garbia da, berez, baiña gaurko mundu onetan eta oraingoz utopikua edo amets utzezkoa iruditzen jaku.

AURKA - BARRUDUNAK

Oneik adin orretan gizarte-laguntza bat eskatzea onartzen dabe, baiña ez iñondik be izkillu-laguntza.

Eta orretarako eurak ateraten daben zioa, euren barrua, kontzientzia da. Euren barruak ez dautse izten iñoz iñon izkilluz ilterik, ez eta izkilluak artzerik. Orretarako batzutan erlejiño-zioak izaten dira, beste batzutan barru edo kontzientzi-zioak.

Jokabide bi oneitan antxiñako igarleak esana onartzen da. Izkillu guztiak golde edo igitai biurtzea nai leukee. Beste era batera esateko, izkilluak egiten eragiltzen diran dirutza ikaragarriak, munduaren aurrerapenerako eta munduan dan gosea kentzeko erabiltea.

AMETSAK

Ederrenak izan arren be, ametsak amets.

Guztion guraria da bakea, guda guztiak uxatzea, alkar-ulertu-eziñak berbaz konpontzea, baiña zori txarrez, gudak eta gudarako arriskuak beti dagoz gugandik urrean, toki baten ez ba'da bestean.

Dana dala, gaurko gazte eta ain gazte ez diranen burubide oneik gizartean zer-pentsau emoten dabe eta mundua obetzeko bide bat dira.

Gizarteak aurrera aundia egiten dauanean, bear ba'da polizirik eta ertzaiñik be ez da bearke.

Noiz izango ete da ori?

Euskaldunai gudak gomutaki txarrak itzi daukuez.

M.O.'EK